

Bilboko *La Palanca*

Betiko joandako glamourra

Gorteetako kaleak eta haren inguruak nortasun handiko auzoa osatzen dute Bilbon. *La Palanca* du goitizena, ez dago erabat argi nondik sortua. Teoria batek prostituzioan kokatzen du hitzaren jatorria, beste batek meatzaritzan. Bi eginkizun horiek dira, hain zuzen, auzoaren izaera zizelkatzen lan handiena egin duten mailuak. Baina meatzariak aspaldi aldatu zuten lanbidea, eta gaurko prostituzioak ez dauka zerikusirik garai batekoarekin. Palanka hau ez da ia inor erakartzeko gauza, are gutxiago mundua mugiaraztekoa. Lehengo giroaz, argiaz, koloreaz, kabaretez, artistez... ez da arrastorik.

UNAI BREA



“**BILBOKO HISTORIA** kontatzen dela, beti salto egiten da Zazpi Kaleetatik, Erdi Arotik, burgesiaren hiri modernora. Ez da hitz egiten San Frantzisko kaleaz, Gorteetakoaz, *La Palanca*az... Liburuak hutsune hori bete nahi du”. Hitzak Arturo Izarzelaiazenak dira, eta aipatu duen liburua, *El barrio de Las Cortes, una historia de la La Palanca Bilbaina* (Gorteetako auzoa, Bilboko La Palancaren historia), Izarzelaiaek eta Txema Uriartek, biak bilbotar petoak, elkarlanean idatzitakoa.

La Palanca izendapena ez duzu inongo agiri ofizialetan aurkituko. Herriak sortu zuen, eta hark baino ez du erabiltzen. “Toki zehatz batena baino, giro baten izena da”, dio Txema Uriartek. Prostituzioa, kabaretak eta parranda, horiek bihurtu zuten Gorteetako kalea berezi.

60ko hamarkadan 20 edo
30 areto zeuden Bilboko
Gorteetako kalean, eta bakoitzak
bere orkestratxoa zeukan

Ez dakigu noiz hasi zen prostituzioa auzoan, baina argi dago Bigarren Karlistaldia amaitu zen garaian, 1876an, ondo errotuta zegoela. Garai hartan agintariak erabaki zuten prostituzioa arazo bilakatua zela Bilboko inguru horretan, eta arautegia sortu zuten kontrol pixka bat ezartze aldera. Aldameneko meatzetako langileak bezero, prostituzio etxeak –tolerantzia etxe esaten zitzairen– perretxikoak legez ugaltzen ziren. Ustez, *La Palanca* izena meatzariak erabiltzen zuten palankatik etor liteke; edo beharbada, beste teoria baten arabera, prostituta nahiz bezeroek genitalak garbitzeko erabiltzen zituzten garbiontziatik, gaztelaniaz *palangana*.

Gau giroaz den bezainbatean, Gorteetako kaleak Espainiako II. Errepublikan bizi izan



IÑIGO AZKONA



Gorteetako kalea 1974an (goian) eta gaur egun (ezkerrean). Bitxia bada ere, "kolore" gehiago dago zuri-beltzeko argazkian. Neoizko argiak ziren kaleko jaun eta jabe orain dela 35 urte, gainbeheraren hazia ereiteko gutxi falta zen arren.

zituen garai loriatsuenak. 36ko Gerra aurretik bost kabaret handi zeuden bertan, eta hamai-ka areto txiki. Gerrak eraman zituen gehienak. Izarzelaia eta Uriartek beren liburuan diotenez, frankistek ez zituzten gustuko halako lekuak, jendea elkartzeko eta, akaso,

konspirazioren bat edo beste sortzeko hain aproposak. Gerra ondoko lehenengo urteetan, debekatu egin zuten kabaret, dantzaleku eta antzekoak irekitzeko lizentzia berriak ematea.

Higiene berezia

1873an, Bilboko Udalak lehenbiziko Higiene Bereziko Arautegia onartu zuen. Haren bidez prostituzioa arautu nahi zuten, osasunaren aldetik batez ere. Arautegia 1894an berridatzi zuten, Higiene Bereziko Bulegoa ezarri. Garaiko agirietan irakur daitekeen legez, "prostituzioa ikuskatzea eta ahal den heinean erreprimitzea" zen helburua. Den-dena "moralaren eta osasun publikoaren onerako, gaixotasun kutsakorak zabaltzea eragotziz". Prostituten "higieneak" baino, bezeroenak sortzen zuen kezka. Gaitz benereoei jotako gizon kopurua gora zihoan, eta horrek eragin zuen, azken batean, Udalak neurriak hartzea.

Higiene Bereziko Bulegoak erregistro batean jasotzen zituen prostituzio-etxeak eta horietan lan egiten zuten emakume guztiak. Hala zen teoriarik behintzat, praktikan batzuek saihestu egiten baitzuten erregistroa. Legea betetzen zutenek aldiro joan behar zuten Sendagile Higienistarengana. XIX. mende amaieran, astean bi aldiz egin behar zuten hori, eta azterketa medikua gairatzen ez zutenak erietxera bidaltzen zituzten. Izen desberdinekin bada ere, higiene bereziko zerbitzuek 1956ra arte jarraitu zuten indarrean Bilbon. Urte hartan, gobernu frankistak legea ezarri zuen prostituzioa debekatuz. Hura ere teoria hutsa.

30 orkestra, mila pertsonaia

60ko hamarkadan berpizte halakoa izan zen kaleko giroan. Areto asko zabaldu zituzten, ez lehenengo kabaret handiak, baina bai zuzeneko ikuskizunak eskaintzeko adinak. Izarzelaia eta Uriartek jasotako testigantzen arabera, 20 edo 30 areto zeuden Gorteetako kalean, bakoitzak bere orkestra zuela. Neoizko argiari esker, *La Palanca* ez zuen sekula iluntzen. Parranda handien gunea zen, artisten, sasi-artisten eta era guztietako pertsonaia bitxien biltokia. Prostituzioak, zer esanik ez, indar betean jarraitzen zuen. Glamourra zegoen.

70eko hamarkadaren amaierak giro haren azkentzea ekarri zuen. Bideoaren eta play-backaren erruz, zuzeneko ikuskizunarenak egin zuten. 80ko hamarkadako lehen urteetan itxi zuten Bataclán, ustez Gorteetako azken areto *dotorea*. Bestetik, heroina iritsi zen auzora, haren arima errotik aldatuz. Ordura arteko prostitutak auzokideak ziren, kaleko bizitzan integratuak. Zaldi zuriak beste prostituzio mota bat ekarri zuen, baina hori ere desagertuta dago gaur egun.

Orain, hiruzpalau *night club*ek eusten diote nola edo hala, lehenengo dotoreziaz oroitzapena baino ez da gelditzen, eta kalean dabilzan prostitutak, ez asko, afrikar etorkinak dira batez ere. Garai batean, 2.000 inguru egon ziren erregistratuta Bilbon, gehien-gehienak *La Palanca*. Gaurkoa haren itzala ere ez da, baina meatzariak baino luzeago iraun dute behintzat. ■